



INGURUMEN, LURRALDE  
PLANGINTZA, NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA



jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea  
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

# ekoetiketak



# 02

Kontsumo berdea

---

Udalsarea 21ek **“Kontsumo berdea”** izeneko zenbait argitalpen egin ditu EAEko udaletako saltokiei zuzenduta.

“Produktu berdeei” edo ingurumenari inpaktu gutxiago egiten dioten produktuei buruzko informazioa eta trebakuntza ematea da helburua. Zehazki, produktuen etiketa ekologikoari buruzko informazioa ematen du gidak.

Merkataritza berdearen sustapenean saltokiek garrantzi handia dutela aitortzen du “Kontsumo berdea” gidak. Baliabide hauek dituzte horretarako:

- Ingurumen-inpaktu gutxiago egiten duten produktuak eskaintzea
- Kontsumitzaileari informazioa eta trebakuntza ematea

Informazio gehiagorako, begiratu webgune hauetan:

[www.ingurumena.net](http://www.ingurumena.net)

[www.productosostenible.net](http://www.productosostenible.net)

[www.udalsarea21.net](http://www.udalsarea21.net)

[www.ihobe.net](http://www.ihobe.net)

# 02

## ekoetiketak



## Nola antzeman zein produktuk duten ingurumen eragin txikiena? Horretarako, EKOETIKETAK lagungarri zaizkigu

Gaur egun, ingurumenarekin eta beren osasunarekin kezkatuta, gero eta pertsona eta familia gehiagok aukeratzen dute ingurumen eragin txikiagoko produktuak kontsumitzea. Ez da lan erraza, ordea. Merkatuak aukera ugari eskaintzen duenez eta produktuen ingurumen ezaugarriak, gutxi gorabehera zehaztasunez bada ere, nabarmentzeko joera duenez, ezinbestekoa da aipatutako lanak hartzea ezagutza eta prestakuntza hobetzeko. Etiketa ekologikoek zeregin horretan laguntzen dute.

### Ez zuri ez beltz

Kontsumitzaile garen aldetik, argi izan behar dugu nekez aurki daitekeela produktu perfekturik. Alegia, % 100ean ekologikoa, berdea edota iraunkorra den produkturik. Produktu orok eragiten du ingurumenean, baliabideak kontsumitzen ditu eta. Kontsumo berdea baldintza zorrotzak betetzen dituela. Era berean, informazioa eskaintzen du produktuak alderatzeko; hartara, ingurumen ikuspegitik onenak diren produktuak aukera ditzakegu.

### Zer dira etiketa ekologikoak edo ekoetiketak? Zer esan nahi du produktu batek etiketa ekologikoa edukitzeak?

Etiketa ekologikoari esker, merkatuan zer produktuk duten ingurumen eragin txikiena jakin dezakegu. Etiketa ekologikoak ziurtatzen du produktuak ingurumena babesteko baldintza zorrotzak betetzen dituela. Era berean, informazioa eskaintzen du produktuak alderatzeko; hartara, ingurumen ikuspegitik onenak diren produktuak aukera ditzakegu.

## Nola jakin ziurtagiri eta zigilu guztietatik zein aukeratu?

### Arretaz azter ezazu produktuak eskainitako informazioa

Berdea boladan dagoenez, horri buruzko publizitate asko dago. Gogoan har ezazu «ekologikoa», «ingurumena errespetatzen duena», «biologikoa», «organikoa», «naturala» edo «biodegradagarria» agertzen denean, horrek ez duela esan nahi produktuaren ingurumen hobekuntzarik dagoenik, ezta hori kontrolpean dagoenik ere. Azaleko esamoldeak dira, informazio zehatzik gabekoak eta, beraz, ingurumen baliorik ez dutenak.

Esaterako:

#### PUNTU BERDEA



Ikur horrek adierazten du enpresa ontziratzaileak kanon bat ordaindu duela ontzi hondakinen kudeaketa eta birziklapena ziurtatzeko. Hala ere, ikurrak ez du ingurumen kalitateari edo ontzi barruko produktuari buruzko informaziorik ematen.

#### MÖBIUSen ZIRKULUA



Ikur hori produktu birziklatuetan zein birziklagarrietan erabiltzen da. Barrualdean %ren bat agertzen denean, produktua egiteko erabili den material birziklatuaren ehunekoa adierazten du.

Baina, bestelako informaziorik gabe, ez du balio produktuaren ingurumen hobekuntza ezagutarazteko.


## Zeintzuk dira ekoetiketa zorrotz eta hertsienak?

Ingurumen ziurtagiri guztietan, I. motako ekoetiketak dira zorrotzenak. Ekoetiketa horiek erakunde ziurtagiri-emaileek ematen dituzte eta produktuak, haren bizitza ziklo osoan (ekoizpenetik hasi eta erabili eta hondakin gisa kudeatzen den arte), legeak ezarritakoak baino baldintza zorrotzagoak betetzen dituela bermatzen dute.

Herrialde bakoitzak bere ekoetiketa ereduak dituenaz, etiketa ekologiko ugari eta era askotakoak daude merkatuan.







Europako Etiketa Ekologikoa (Europa)



Irudian Europako herrialdeak eta beren I. motako ekoetiketa ereduak daude. Baina ez dira bakarrak; mundu mailan ere hainbat herrialdek beren ereduak dute.



Horien guztien artean, saltokietan bilatu edo eskatu beharko ditugun etiketa ekologiko nagusiak honako hauek dira:

Etiketa edo ikurra	Zein produktutan aurkituko dugu? Honako hauei ezar dakieke:	
<p><b>EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOA</b> Europako Batasunaren Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ematen duena (<a href="http://www.eco-label.com">www.eco-label.com</a>)</p> 	<p><b>Produktu nagusiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Oihalgintza produktuak</li> <li>- Pinturak eta bernizak</li> <li>- Erabilera orokorreko garbiketa produktuak</li> <li>- Lurra ongarritzekoak</li> </ul>	<p><b>Beste produktu batzuk:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxetresna elektrikoak</li> <li>- Oinetakoak, jantziak, oheko arropak eta etxe barruko ehunkiak</li> <li>- Kopia egiteko papera eta paper grafikoa</li> <li>- Muselina papera</li> <li>- Bonbillak</li> </ul>
<p><b>AINGERU URDINA</b> Alemaniako Ingurumen Ministerioak ematen duena (<a href="http://www.blauer-engel.de">www.blauer-engel.de</a>)</p> 	<p><b>Produktu nagusiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Paper birziklatua</li> <li>- Pinturak eta bernizak</li> <li>- Paper pintatua</li> <li>- Taula birziklatuak</li> <li>- Fotokopiagailuak</li> <li>- Hormetarako zur zuntzeko estaldurak</li> </ul>	<p><b>Beste produktu batzuk:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Inprimagailuak, ordenagailuak</li> <li>- Autobusak, autoentzako guprilak</li> <li>- Altzariak</li> <li>- Parketak eta oholtzak</li> <li>- Plastikozko poltsak eta plastiko birziklatuaz eginiko produktuak</li> </ul>
<p><b>BELTXARGA NORDIKOA</b> Ekoetiketatze Batzorde Nordikoak ematen duena (<a href="http://www.svanen.nu/eng/">www.svanen.nu/eng/</a>)</p> 	<p><b>Produktu nagusiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Inprimakiak</li> <li>- Hotelak</li> <li>- Garbiketa produktuak</li> <li>- Garbitegirako garbigarriak eta orban-kentzekoak</li> <li>- Muselina papera</li> <li>- Argazkiak errebelatzeko zerbitzuak</li> </ul>	<p><b>Beste produktu batzuk:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxetresna elektrikoak eta sukaldeko ekipamendua</li> <li>- Papera, itsasgarriak</li> <li>- Kaleko altzariak</li> <li>- Ikus-entzunezko gailuak</li> <li>- Zurak</li> <li>- Zapiak eta lanbasak</li> </ul>
<p><b>AENOR</b>-Ingurumena AENOR, Espainiako Normalizazio eta Ziurtapen erakundea (<a href="http://www.aenor.es">www.aenor.es</a>)</p> 	<p><b>Produktu nagusiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pinturak eta bernizak</li> <li>- Etiketak eta paperezko gutun azalak</li> <li>- Artxibatzaileak eta sailkatzaileak</li> <li>- Erreprografiarako makinak</li> <li>- Modulu fotovoltaiakoak</li> </ul>	

## Horiez gain, jarduera sektore edo produktu jakin batzuei dagozkien etiketa ekologikoak ere badaude



Aipatutako etiketa horiek erakunde publikoek edo sozialek ematen dituzte, baita nazioartean sona handia duten sektore elkargo ezagunek ere. Dena dela, etiketa ekologiko horiek ez dute aintzat hartzen produktuaren bizi-ziklo osoa, alderdi jakin batzuk baizik.

### Sektoreka, honako hauek dira etiketa ekologiko zabalduenak:



- Laborantzaz eta elikadura
- Ehunak
- Zura eta zuretik eratorritako produktuak
- Gailu informatikoak eta ofimatikoak

SEKTOREA: Laborantza eta elikadura			
Etiketa edo ikurra		Zer esan nahi du?	
 <p>Aurreko ikur horren ordez, beheko aldean dagoena erabiliko da 2010eko uztailaren 1etik aurrera.</p>  <p>Europar Batasunak emandako etiketa.</p> <p>(<a href="http://www.ec.europa.eu/agriculture/qual/organic/plan/index_es.htm">www.ec.europa.eu/agriculture/qual/organic/plan/index_es.htm</a>)</p>		<p>LABORANTZA EKOLOGIKOA-EBREN KONTROL SISTEMA. Ikur hori daramaten produktuek honako hau ziurtatzen dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gutxienez, produktuaren osagaietako % 95 era ekologikoan ekoiztu da.</li> <li>- Ikuskaritza ofizial planeko irizpideak betetzen ditu produktuak.</li> <li>- Produktua ekoizlearenetik edota eraldatzailearenetik zuzenean iristen da zigilatutako ontzian.</li> <li>- Ekoizlea, eraldatzailea edo saltzailea nor diren azaltzen du eta ikuskaritza erakundearen kodea edo izena darama.</li> </ul>	
 <p>Autonomia erkidego bakoitzak emandako etiketa, laborantza ekologikorako Europako araubideari jarraiki</p> <p>(<a href="http://www.ekonekazaritza.net">www.ekonekazaritza.net</a>)</p>		<p>Produktuak ekoizpen eta etiketatze araubidea eta laborantza ekologikoaren kontrol sistema betetzen dituela adierazten du ikur horrek. Autonomia erkidego bakoitzaren ardura da betetzen den ala ez ikuskatzea.</p>	
 <p>Frantziako «Agriculture Biologique» elkartearen etiketa.</p>	 <p>Alemaniko Ministerio Federalak laborantza eta elikadura ekologikoaren sektoreak ekoiztutako produktuei emandako etiketa.</p>	 <p>Holandako SKAL lege erakundeak emandako etiketa.</p>	 <p>Munduko Itsasoak Babesteko Kontseiluak (MSC) emandako etiketa. Irabazi asmorik gabeko erakunde hau gehiegizko arrantza ustiapenaren arazoari irtenbidea emateko asmoz sortu zen.</p>


**SEKTOREA: Oihalgintza**

Etiketa edo ikurra	Zer esan nahi du?
	<p>OEKO-TEXek emandako Europako ikurra (<a href="http://www.oeko-tex.com">www.oeko-tex.com</a>). Hiru zigilu edo maila dauzka:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>OEKO-TEX Standard 100:</b> azken produktuan substantzia kaltegarrik ez dagoela bermatzen du.</li> <li>- <b>OEKO-TEX Standard 1000:</b> ehungintza produktuaren ingurumen eta gizarte hobekuntza bermatzen du.</li> <li>- <b>OEKO-TEX Standard 100 plus:</b> “Öko-Text Standard 100” ziurtagiria jaso duten produktuei ematen zaie, baldin eta “Öko-Text Standard 1000”ren irizpideen arabera ekoitziak badira.</li> </ul>
	<p>Espainiako AITEX institutuak bultzatutako ingurumen eta gizarte arloetarako nazioarteko ziurtagiria (<a href="http://www.madeingreen.com">www.madeingreen.com</a>). Hiru oinarri ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Produktua:</b> ehunikiak ez duela substantzia kaltegarrik.</li> <li>- <b>Ingurumena:</b> produktuaren ekoizpen instalazioan ingurumena errespetatzen dela.</li> <li>- <b>Irizpide sozialak:</b> Lanaren Nazioarteko Erakundearen (OIT) arabera, produktuaren ekoizpen instalazioan giza eskubideak eta eskubide unibertsalak errespetatzen direla.</li> </ul>

**SEKTOREA: Zuraren erabilera**

Etiketa edo ikurra	Zer esan nahi du?
	<p>Irabazi asmorik gabeko Nazioarteko Basozaintza Kontseiluak (FSC) emandakoa (<a href="http://www.fsc-spain.com">www.fsc-spain.com</a>). Era iraunkorrean (hala ingurumenaren aldetik, nola gizartearenetik) kudeatutako baso edo sailletako zura dela ziurtatzen du.</p>
	<p>Basogintzaren ziurtatze sistemen onarpenari buruzko programa edo basogintza sektore pribatuaren borondatezko ekimena (<a href="http://www.pefc.es">www.pefc.es</a>). Ingurumen iraunkortasunaren arabera kudeatutako baso edo sailletako zura dela ziurtatzen du, Europako basoen babeserako Helsinkiko ministerio arteko konferentziak (1983) eta Lisboakoak (1989) ezarritako irizpideei jarraiki.</p>


**SEKTOREA: Gailu informatikoak eta ofimatikoak**

Etiketa edo ikurra	Zer esan nahi du?
	<p>AEBetako Ingurumenaren Babeserako Agentziak (EPA) emandakoa. Europako Batasuna dago gailu informatiko eta ofimatikoentzako Energy Star programaren partaideen artean (<a href="http://www.eu-energystar.org">www.eu-energystar.org</a>). Energy Star etiketa daramaten produktuek energia eraginkortasun arloko gutxieneko irizpideak betetzen dituzte. Honako hauei ezar dakeike: ordenagailuak, fotokopiagailuak, askotariko funtzioak dituzten gailuak, pantailak, inprimagailuak, faxak eta eskanerrak.</p>

## Etiketa berezia: Europako Etiketa Energetikoa

Europako Etiketa Energetikoa produktuen energia eraginkortasunaren berri ematen du, kontsumoak eta errendimenduak adierazita.

Europako etiketa energetikoa nahitaezkoa da lanparen eta etxetresna elektriko batzuen kasuan: hozkailuak, labeak, izozkailuak, ontzi garbigailuak, garbigailuak, lehorgailu elektrikoak eta airea girotzeko gailuak. Horiez gain, borondatezkoa da ibilgailuen kasuan.



Etiketa honi buruzko informazio gehiago hemen: [www.eve.es](http://www.eve.es) edo [www.idae.es](http://www.idae.es) webguneak.

## Azkenik, erosketa arduratsuari ekin bazaio, zein unetan erreparatu behar zaio produktuaren etiketa ekologikoari?

Hainbat pauso eman beharra dago edozein produktu erosterakoan, erabakia era era kontzienteagoan eta arduratsugoan har dezagun:

- 1. urratsa** Benetan beharrezkoa zaigun ala ez aztertzea.
- 2. urratsa** Ezaugarri eta kopuru egokiak finkatzea.
- 3. urratsa** Beharra zentzuzko salneurrian ase dezakeen ingurumen eragin txikieneko produktua bilatzea merkatuan. Bilaketa prozesu horretan, zehaztasunik gabeko publizitatea topatuko dugunez, etiketa ekologikoei erreparatzea lagungarri izango zaigu.
- 4. urratsa** Produktua behar bezala erabiltzea, argibideei eta erabilera jardunbide egokiei jarraiki.
- 5. urratsa** Erabili ostean, eta berrerabiltzeko aukerarik ez badago, hondakina behar bezala kudeatu beharra dago.